



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 15a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2012ko azaroa baino lehen aurkeztu diren inbertsio-laguntzarako espedienteei buruz Valdemoros andreak egindako adierazpenen interpretazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, foru intereseko proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Sozietateen gaineko zerga aldatzeko proposatutako neurri zehatzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ezagutze aldera sozietateen gaineko zergaren aldatzeko arloan planteatutako neurri zehatzak, ekintzailatza sustatzeko eta enpresa-jarduera dinamizatzearen esparruan (8-14/PES-0095). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1308 sarrera-zenbakiarekin erre-

gistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak publikoki ezagutzera eman duenez, ekainaren amaieran Nafarroako Parlamentura igorriko da zerga erreformari buruzko agiria, non jasoko baitira Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten eta haren araugintza-eskumenekoak diren zergak, sozietateen gaineko zerga barne dela, erreformatzeko proiektatu diren neurriak. Neurri horiek aztertzen ari gara, eta oraindik ez da erabaki haietatik zein sartuko diren kasuko lege aurreproiektuan. Hori dela eta, ezin dira une honetan zehaztu eta xehakatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderen erantzuna, museoak asteburuetan ireki ahal izateko garatu diren jarduketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du museoak asteburuetan irekitzeari buruz (PES-00105). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako museo eta bilduma museografiko iraunkorrek era askotako kokalekuetan daude, populazio-dentsitateari, iristeko bideei eta abarrei dagokienez, eta asteburuetan irekitzen dira erantsitako dokumentuan zehazten den bezala.

Erakunde horien arduradunek beren ordutegien egutegia egina dute denboraldi bakoitzean beren erakundeetarako egokienak diren inguru-

barren arabera, lehentasuna emanez, orokorrean, asteburuetan irekitzeari (Nafarroako Museoen Sistemakoak direnak aipatzen dira, eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroa ere biltzen da).

Nafarroako Foru Komunitatearen titularitatekoak diren museoetan (Nafarroako Museoa eta Karlistismoaren Museoa), ordutegiak aukera ematen du asteburuetan bisita egiteko (larunbatetan, goiz eta arratsalde, eta, igandeetan, goizez). Sarbidea doakoa da larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan.

Gainera, nabarmendu beharra dago Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuak 2013an guztira 1.465.023,70 euro eman zituela museo eta bilduma museografiko iraunkorrei diru-laguntzak emateko, zenbait xederek. Laguntza horien artean daude Jorge Oteiza Fundazio Museoa eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroa finantzatzekoak, bai eta beste entitate batzuetarako funtzionamendurako emandakoak ere, haiek publikora zabaltzeko laguntza gisa. 2014an, 1.237.500 euro daude xede berdinetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

**NAFARROAKO MUSEOEN ETA BILDUMA MUSEOGRAFIKO IRAUNKORREN ZERRENDA**  
**Ordutegiak (2014ko maiatzaren 18an eguneratutako informazioa)**

Nafarroako Museoen Sistema	Museoa Bilduma Museografiko Iraunkorra	Ordutegia
BAI	Nafarroako Museoa. Santo Domingo, 47 31001 Iruña Tel. +34 848 426492 www.museodenavarra.navarra.es	Asteartetik larunbatera: 9:30-14:00 eta 17:00-19:00. Igande eta jai-egunetan: 11:00-14:00. Itxita: astelehenean, urtarrilaren 1ean, uztailaren 6an eta abenduaren 25ean. Ordutegi bereziak: kontsultatu.
SÍ	Karlismoaren Museoa La Rúa, 27-29 31200 Lizarra Tel. +34 948 552111 www.museodenavarra.navarra.es	Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igande eta jai-egunetan: 11:00-14:00. Itxita: astelehenean (jai-egunetan izan ezik), urtarrilaren 1ean, abuztuaren 2an (bertako jaiak) eta abenduaren 25ean.
BAI	Jorge Oteiza Fundazioa Museoa Aldapa, 24 31486 Altzua Tel. +34 948 332074 www.museooteiza.org	Uztaila-abuztua: asteartetik larunbatera, 11:00-19:00. Igande eta jai-egunetan, 11:00-15:00. Iraila-ekaina: astearte eta asteazkenean, sarbidea bisita gidatuarekin, aurrez erreserba eginda. Ostiral eta larunbatean, 10:00-15:00; larunbatean, 11:00-19:00; igande eta jai-egunetan, 11:00-15:00. Itxita: astelehenean, urtarrilaren 1ean eta abenduaren 25ean. Abenduaren 24an eta 31n, 13:00etatik aurrera
BAI	Gustavo de Maeztu Museoa. San Nicolás, 1 31200 Lizarra Tel. +34 948 546037 www.museogustavodemaeztu.com	Asteartetik ostiralera: 9:30-13:00. Larunbat, igande eta jai-egunetan: 11:00-14:00. Itxita: astelehenean.
BAI	Muñoz Sola Arte Modernoko Museoa, Plaza Zaharra 2 31500 Tuterako Tel. +34 948 402640 www.castelruiz.es	Asteazkenean: 11:00-13:20 eta 17:00-19:00. Ostegunean eta ostiralean: 10:00-13:30 eta 17:00-19:00. Larunbatean: 10:00-13:30 eta 17:00-19:30. Igandean: 10:00-13:00. Itxita: astelehenean, asteartean, urtarrilaren 1ean eta 6an, uztailaren 14tik 30era eta abenduaren 24an eta abenduaren 31n.
	Tuterako Museoa. Roso, 2 31500 Tuterako Tel. +34 948 402161 www.museodetudela.com	Astelehenean ostiralera: 10:00-13:30 eta 16:00-19:00. Larunbat eta jai-egunetan: 10:00-13:30. Beste ordutegi batzuk: uztailaren 27tik 20ra eta abenduaren 27tik urtarrilaren 9ra: 10:00-13:30. Itxita: igandean, urtarrilaren 1ean eta 6an, uztailaren 24tik 26ra eta abenduaren 24an, 26an eta 31n
	Orreagako Andre Mariaren Errege Kolegio Elizaren Altxor Museoa 31650 Orreaga Tel. +34 948 790480 www.roncesvalles.es	Apirila-urria: 10:00-14:00 eta 15:30-19:00. Azaroan eta martxoan: 10:00-14:00 eta 15:00-18:00. Beste ordutegi batzuk: abenduak asteburua: 10:00-14:00 eta 15:00-18:00. Abenduaren 9tik otsailaren 28ra: 10:30-14:30. Itxita: Asteazkenean (abenduaren 9tik otsailaren 28ra, urtarrilaren 1ean, 6-31, irailaren 8an eta abenduaren 25ean.
	Xabierko Gazteluko Museoa 31411 Xabier Tel. +34 948 884024 www.santuariojaviersj.org	Urtarril-otsaila: 10:00-13:30. Martxotik urria: 10:00-13:30 eta 15:30-18:30. Azaroan eta abenduak: 10:00-13:30 eta 15:30-17:30. Itxita: urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.
	Tulebrasko Monasterioaren Museoa Monasterio zistertarra, 31522, Tulebras. Tel. +34 948 851475 www.monasteriodetulebras.com	Maiatza-iraila: asteartetik larunbatera 11:00-13:30 eta 16:15-18:00; igandean, 11:00-12:00 eta 16:00-18:00. Urritik apirilera: larunbatean eta igandean, 16:15-18:00. Taldeak: kontsultatu. Itxita: astelehenean.
	Julían Gayarre Etxe-museoa 31415 Erronkari Tel. +34 948 475180 www.juliangayarre.com	Urtarriletik martxora eta urritik abendura: larunbatean: 11:30-13:30 eta 16:00-18:00; igandean: 11:30-13:30; eta jai-egunetan: kontsultatu Apirila-iraila: asteartetik igandera 11:30-13:30 eta 17:00-19:00. Beste ordutegi batzuk: abuztuak, arratsaldeak 17:00-20:00. Itxita: astelehenean.
	Zubietako Errota Ekomuseoa Leitzako errepiidea, 31746, Zubieta Tel. +34 948 451926 www.zubietakoerrota.net	Urtarrila-ekaina: asteazkenetik igandera, 11:00-14:00. Uztailan. astelehenean igandera, 11:00-14:00. Abuztuak: astelehenean igandera, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Iraila-abendua: asteazkenetik igandera, 11:00-14:00.
	Las Eretas Museo eta Aztarnategi Arkeologikoa (Berbintzana) Seretas, 2 31252 Berbintzana Tel. +34 948 722176 www.eretas.es	Larunbatean: goizez, 11:00-14:00; arratsaldean, apirilatik irailera 17:00-19:30 eta urritik martxora 16:00-18:00. Igande eta jai-egunetan: 11:00-14:00. Beste ordutegi batzuk: Aste Santua eta abenduak zubiak: kontsultatu. Itxita: astelehenean ostiralera (taldeen bisita hizartuak izan ezik), urtarrilaren 1ean eta 6an, abenduaren 24an, 25ean eta 31n.
	Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Calvario, 2 31620 Uharteko Tel. +34 948 361457 www.centrohuarte.es	Asteartetik ostiralera: 17:00-20:00. Larunbatean: 12:00-14:00 eta 17:00-20:00. Igandean: 12:00-14:00. Astelehenean, itxita.

## **Galdera, 2012ko azaroa baino lehen aurkeztu diren inbertsio-laguntzarako espedientei buruz Valdemoros andreak egindako adierazpenen interpretazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, 2012ko azaroa baino lehen aurkeztu diren inbertsio-laguntzarako espedientei buruz Valdemoros andreak egindako adierazpenen interpretazioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiaren adierazpenen interpretazioari buruz (8-14/PES-00087). Galdera hori 2014ko apirilaren 15eko 1219 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Interpretazioa zuzena da alderdi kualitatiboetarako dagokienez; hau da:

– Aurten espediente kopuru jakin bat ebatzi behar da 2012ko azaroa baino lehenago indarra duen deialdiaren arabera.

– Gainerako ebazpen espedienteak deialdi berriari sartuko dira, azkenik erabakitzen diren baldintzekin.

Espediente kopuruaren balorazioari dagokionez eta erabiliko den aurrekontuari dagokionez, hautatzen den jokalekuaren arabera izanen da. Honakoa esan daiteke:

– Egiazki, halako espediente kopuru bat ebatziko da non aukera egonen baita 2014ko aurtengo aurrekontu-ekitaldiko 12 milioi hitzartzeko.

– Gainerako espedienteak, 180 inguru, ebazten joanen dira 2014ko ekitaldian zehar eta hurrengo ekitaldiaren hasieran, baina 2015eko ekitaldiaren eta ondorengoaren kargura. Balorazio ekonomikoa 30 milioi euro ingurukoa da. Oraindik ere baloratzen ari da haietako zati bat egungo deialdiaren baldintzekin sartzea: Nolanahi ere, ahaleginak egiten dira laguntzaren baldintzetan ahal den murrizketa gutxien ezartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du inbertsio-proiektuen abaletarako deialdiaren ildo nagusiei buruz (8-14/PES-00097). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1310 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Abaletarako deialdia inbertsio-proiektuetarako izanen da. Nafarroan gauzatutako proiektuak izanen dira, nagusiki bideratuak Nafarroako ekonomiako sektore estrategikoetara: nekazaritzako eli-

kagaiak, bio-farmazia, energia berriztagarriak, automozioa, mekatronika eta nazioartekotze-prozesuetan dauden enpresak.

Gaur den egunean, deialdirik ez dago, zeren eta baloratzen ari baita Sodenaren bitartez abalen programa bat sartu eta garatzeko aukera, elkarren bermerako sozietateen laguntzarekin. Gaur egun Nafarroako enpresen finantzaketa-arazoa jada ez denez likidezia faltari dagokiona, baizik eta kaudimen/berme faltari dagokiona, Sodena finantza-entitateekin eta arrisku-kapitaleko sozietateekin negoziatzen ari da hitzarmen bat sina dadila Nafarroako enpresa txiki eta ertainen kreditu falta horri konponbidea emateko, Sodenak sendotuz enpresa txiki eta ertain horiek elkarren bermerako sozietateei eskaintzen dizkieten bermeak, halako moduz non % 100eko abala izanen baitute; harekin, izan ere, finantza-entitateekin negoziatu ahalko dute eta, gainera, kostu finantzario hobeak lortu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 29an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, foru intereseko proiektuei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, foru intereseko proiektuei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du foru erkidegoaren intereseko zenbait proiektu direla-eta egindako lanari buruz (8-14/PES-00098). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1311 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak, Ogasun, Industria eta Enpleguak konseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Proiektu horiek Emausko Trapuketariak eta Hermanos Cirauqui Díaz S.L.-renak dira.

Horiei buruz, Lourdes Goicoechea andreak xehetasun guztiekin informatu zuen Parlamentuan, joan den udan egindako agerraldian.

Aipatutako proiektuak foru intereseko deklaratzeko prozesua jada amaituta dago.

Foru erkidegoaren interesekoa izateari dagokionez, adierazi beharra dago ezen Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluko 1. idatzatiak hau diola: "Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, foru intereseko inbertsio deklaratu ahal izanen ditu Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak".

Lourdes Goicoechea kontseilariaren aipatutako agerraldian, xehetasun guztiekin azaldu ziren bi proiektu horien ezaugarriak. Hala eta guztiz ere, berriz aipatuko ditugu bi proiektu horiek "foru erkidegoaren intereseko inbertsioztat" kalifikatzeko arrazoiak.

### Hermanos Cirauqui Díaz, S.L.

– Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian kokatuta dago, eta horrek haren garapena eta hazkundea sendotzen ditu.

– Makineria industrialeko hornitzaileak, eraikitzaileak eta proiektua garatu, ezarri eta aurrera eramateko lanetan diharduten teknikari eta aholkulari guztiek Nafarroan dute helbide soziala.

– Zuzeneko enplegua: 12 pertsona.

– Lehengaiaren erabilera (patata, azenarioa eta beste barazki gogor batzuk) Nafarroako Ubi-dearekin indartutako ureztalurren laboreetarako beste aukera bat da.

– Harreman estua du Nafarroako hazien ekoizleekin.

– Zuzeneko enplegua sortzen du sektorearekin lotutako beste sektore batzuetan (garraioa, laguntza teknikoa, laborategiak, I+G+B, mantentze-lanak, aseguruak...).

### Emausko Trapuketariak

– Hondakinen kudeaketan egiten den jarduera oso intentsiboa da enpleguari dagokionez (186 enplegu, gaur egun).

– Jarduera hori Nafarroan egiteak saihesten du bera Nafarroaz kanpoko beste toki batean egin dadila.

– Enpleguaren % 70 gizarte bazterkeriaren arriskuan dauden pertsonena da.

– Enpleguaren % 25 ezgaituena da.

– Inbertsioak aukera emanen du etorkizunean hazteko, hondakinei balioa ematearen sektorean beste gaitasun eta jarduera batzuetara zabaltearen bidetik.

– Aurreikusita dago 17 pertsonentzako enplegua sortzea, eta oso litekeena da kopuru hori handitzea, jarduera zabaltzeko aukerak direla eta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak konseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, industrialdeetan ezartzeko eta kokagune egokia aurkitzeko laguntza jaso duten enpresei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du enpresen sustapenaren eta dinamizazioaren arloan 2013an garatutako eta legegintzaldiaren amaierara arte garatuko diren neurriei buruz (8-14/PES-0099). Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

1. Honako enpresei lagundu zaie: Elipe Logística y Servicios S.L., lurzati baten azpiegiturak haren beharretara egokituz, etorkizunean bertan ezar dadin, eta Rugui Brights, Galarren.

2. Enpresa horiei laguntzeko erabili den zenbateko ekonomikoa 23.525,65 eurokoa da, eta azalpena, berriz, Montes del Cierzo industrialdean azpiegiturak egiteko obrak eta exekuzioaren

zuzendaritza, Elipe Logística y Servicios, S.L.ren lurzatia egokitzeko.

3. Industrialdeetako azpiegiturak hobetzeko erabili den inbertsioa, bertan enpresak ezarri ahal daitezen, 23.525,65 eurokoa da.

4. Honako lanak egin dira enpresa-inbertsio prozesuei lotutako administrazio-prozesuetan enpresei laguntzeko:

– Elipe Logística y Servicios, S.L., Tuteran.

– Congelados Ariza, Buñuelen.

– Rugui Brights, Galarren (jarduera sailkatuen espediente izapidetzen ari da)

– Logisiete, Vianan (jarduera sailkatuen espediente izapidetzen ari da)

– UVESA, Tuteran (foru erkidegoaren intereseko proiektuaren deklarazioa)

– Emausko Trapuketariak (foru erkidegoaren intereseko proiektuaren deklarazioa)

– Hermanos Cirauqui (foru erkidegoaren intereseko proiektuaren deklarazioa)

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



## **Galdera, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, nekazaritzako produktuen balio erantsia handitzeko laguntzei buruzko programa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du nekazaritza-eta basogintza-sektorearen lehiakortasuna handitzeko laguntzei buruz (8-14/PES-00100). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1313 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Laguntza programa hori definitzeko eta garatzeko kronograma.

Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka udan zehar aurkeztea FEADER funtsarekin, Nafarroako LGParen barruan, kofinantzatu beharreko

neurrien programazio proposamena. Aipagai dugun neurria horien artean dago.

Espero da 2014ko amaieran eta 2015eko hasieran Europako Batzordeak Nafarroako LGPa onestea.

Behin LGPa onetsita, 2015aren hasieran, nekazaritza-produktuen balio erantsia handitzeko laguntzen deialdia aterako da.

Aurrekontu xehakatu.

Neurri honek zenbateko aurrekontua izanen duen oraindik ere finkatu gabe dago.

Eskatu bezala, erabiltzen ari den dokumentazioaren kopia erantsi dugu.

– 1305/2013 FEADER Erregelamendua.

– 18. artikuluan sartutako neurrien gida-fitxa (aktibo fisikoetan egindako inbertsioa)

– 2014-2020 LGParen AMIA azterketa.

Gobernu Irekiaren webgunearen bitartez herri-tarrek parte hartzeko prozesu guztia bideratzen ari gara, 2014-2020 LGParen prestaketaren barruan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, soldatapekorik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa suertatu izanaren arrazoiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (8-14/PES-00103). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1316 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

#### **1. Soldatako langilerik gabeko enpresen kopuruaren bilakaera beste eskualde batzuetan baino okerragoa izateko arrazoiak.**

Fenomeno horren azalpena ez da faktore bakarrera mugatzen, zeren eta errealitate konplexua baita. Halere, gertatutakoaren arrazoi garrantzitsu bat bilatu beharra dago Nafarroak soldatako langilerik gabeko enpresen ehunduran zeukan osaketa sektorialean. Zehazki, Enpresen Direktorio Nagusiaren (DIRCE) datuekin, baieztatu daiteke ezen, krisia hasi baino lehentxeago, higiezin burbuilaren eztandarekin asko sufritu behar zuten hiru sektore Nafarroako soldatako langilerik gabeko enpresen zati handi bat zirela. Honakoak ziren hiru sektore horiek:

Eraikinen eraikuntza.

Eraikuntza espezializatuarekin lotutako jarduerak.

Arkitekturako eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak.

Horiek % 26,1 egiten zuten soldatako langilerik gabeko Nafarroako enpresen guztizkoan. Ehuneko hori nabarmen handiagoa da Espainiako ekono-

miaren guztizkoan erregistratutakoa baino, % 19,1, eta horrek azalduko luke, hein batean gutxienez, galderan aipatzen den jokabide diferentziala.

#### **Egoera honen ondorioak.**

Ondorio nagusia lan merkatuan nabaritzen da. Krisia baino lehen, 2008ko hasieran, "Soldatako langilerik gabeko enpresaria edo langile independentea" kategorian lan egiten zutenek Nafarroan enplegua zuten langile guztien % 12,2 egiten zuten; Espainian, ordea, % 10,6 ziren. Ehuneko horiei buelta eman zaie; izan ere, une honetan % 11,3 eta % 12 dira, hurrenez hurren.

Beste hitz batzuekin: Nafarroako okupazioaren galera Espainiakoa baino nabarmen txikiagoa izan bada ere, bai guztizko okupazioari dagokionez, bai besteren konturako lanari dagokionez, zer edo zer handiagoa izan da norberaren konturako lanaren kategorian.

#### **Nafarroako Gobernuaren neurriak egoera horri aurre egiteko**

Egoera hori kokatuta dago langabeziaren arazo orokorraren esparruan, halako moduz non enplegua sortzera bideratutako egintza eta politika guztiek arazo horri ere erantzuna ematen baitiote. Zehazkiago, honako programak aipa daitezke, besteak beste:

- Enplegu autonomoa sustatzeko diru-laguntzak.
- Nekazaritza-elikagaien arloko mikroenpresak sortzeko eta garatzeko laguntzak (2007-2013 LPGa).
- Autonomo gisa ezartzeko mailegu hobaridunak.
- Langabetuak autonomo gisa ezartzeko laguntza teknikorako diru-laguntza.
- Autonomoei prestakuntza emateko diru-laguntza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, industria berrabiarazteko planaren kronogramari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du aurreko urteetako jarduketak osatze aldera industria berrabiarazteko planari buruz (8-14/PES-00104). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1317 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak denbora luzea darama Nafarroan industria aktibatzekeo politika berri bat sustatzeko lanean, ikuspegi zabal eta global batekin. Egokitzat jotzen dugu industria politikari heletzea ikuspegi integral batetik, eztabaida sozialean oinarrituz eta honakoak kontuan hartuz: finantzaketarako laguntza, inbertsio berriak erakartzea, azpiegituren garapen orekatua, gure enpresen lehiakortasunean energiak duen eragina, garapen

teknologikoa, berrikuntzaren bidez balio erantsia areagotzea eta giza kapitalari prestakuntza ematea, funtsezko faktore gisa.

Hori dela eta, eta jada Gobernuaren Ekintza Planaren esparruan, lan egiten ari gara hainbat eratako proiektuetan. Esate baterako: aktibazio ekonomikora bideratuta dagoen zerga erreforma integrala; enpresentzako abalen linea berri bat; enpresen I+G+B laguntzeko tresna berriak; H2020 Europako finantzaketarako sarbidea errazteko mekanismoak; oihaneko biomasari lotutako sektorearen bultzada eta energiaren aurrezpena eta efizientzia sustatzeko jarduketak.

Modu paraleloan, aktibazio industrialerako estrategia bat diseinatzen ari gara, ordezkartza handiena duten eragile ekonomiko eta sozialekin batera, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren esparruan. Gure asmoa da urte honen amaierarako diseinatuta egotea, eta 2015-2017 aldirako, berriz, operatiboa izatea.

Egiten ari den lanaren oinarri gisa, Nafarroako industria lehiakortasunari buruzko azterlana erantsi dizugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguo kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapa definitzeko eta garatzeko kronogramari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du enpresa-inbertsiorako 2014-2020 eperako laguntzen mapari buruz (8-14/PES-00101). Galdera hori 2014ko apirilaren 29ko 1314 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

#### **• Laguntzen mapa hori definitzeko eta garatzeko kronograma.**

2014-2020 eperako Nafarroako laguntzen maparen proposamenari dagokionez, Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu zitzaion 2014-2020 eperako Nafarroako eskualdeko helburua duten estatu-laguntzen maparen proposamenaren azalpen-txostena.

Proposamen hori Europako Batzordeari igorri zitzaion joan den martxoan.

Maiatzaren 21ean, jakinarazi ziguten Batzordeak Espainiako laguntzen maparen proposamena onetsia zuela. Horren barrenean zegoen Nafarroaren proposamena.

Mapa berriaren arabera laguntzetarako deialdiak 2014ko amaierarako edo 2015eko hasierarako espero dira.

#### **• Aurrekontu xehakatu.**

Neurri honek zenbateko aurrekontua izanen duen oraindik ere finkatu gabe dago.

Erabili den dokumentazioa erantsi dugu:

– Eskualdeko helburua duten estatuko laguntzei buruzko jarraibideak, 2014-2020 eperako.

– Nafarroako eskualdeko helburua duten estatu-laguntzen maparen proposamenaren azalpen-txostena, 2014-2020 eperako.

#### **• Bruselara igorritako mapa-proposamenaren kopia bat.**

Espainiak Bruselara igorritako laguntzen maparen proposamena erantsi dugu; haren barrenean dago Nafarroaren proposamena. Espainiaren proposamena, aipatu den bezala, maiatzaren 21ean onetsi zen (DECISIÓN 21-V-14 Mapa Ayudas España.pdf).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: aipatutan eranskina foru parlamentarien eskura dago Agora aplikazioan).

## **Galdera, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Estatuko Administrazioari zama orokorretarako ekarpen gisa ordaindu beharreko zenbatekoa berrikusi eta negoziatzeagatik 2014ko gastua murrizteari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hitzarmen ekonomikoaren esparruan ekarpena gutxitzeko egin diren kalkuluei buruz (PES-79). Hona Nafarroako Gobernuak igortzen dion informazioa:

Kalkuluak egin ziren Nafarroako Foru Komunitateak bereganatuak ez dituen zamen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beharreko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 9ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak kuota osoan aplikatu beha-

reko kenkari bihurtzeak diru-bilketan izan lezakeen eraginaren gaineko txostenari buruz (8-14/PES-00106). Galdera hori 2014ko apirilaren 30eko 1336 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Parlamentuan zergen arloaren inguruan sortu zen lantaldearen esparruan, enkargatu zen azterlan banakatu bat egin zedila jakite aldera nolako eragina izanen lukeen diru-bilketan kuota kenkari bihurtzeak gaur egun PFEZaren zerga-oinarrian aplikatzen diren murrizketak, gutxieneko pertsonalari zein familiarrari dagozkionak, eta pentsio-planen edo antzekoen murrizketak. Zenbait jokaleku ezarri ziren, baina egiteko epe zehatzik ez zen ezarri.

2. Nafarroako Zerga Ogasunak jada 2013an baloratu zuen eskaria, eta lantaldean ere bere iritzia agertu zuen. 2013ko ekainaren 26an egindako

bilkuran erabaki zen 2013ko bigarren sei hilekoan berariazko saio batzuk egitea, bukatu gabeko gai batzuk lantzeko.

3. Gaur arte egindako azterlana gutxieneko pertsonalari dagokionak diru-bilketan duen eraginari buruzkoa da, eta lau jokaleku desberdin aztertu dira, lantaldean jada jakina den bezala.

4. Galderaren testuan esaten den bezala, otsailean parlamentu-galdera bat (PES-00018) aurkeztu zen gai hau dela eta, eta zegokion erantzuna eman zitzaion.

5. Gaurko galderan aipatzen diren gaiei dagokienez, honakoa informatu behar dugu:

a. Amaituta dago zerga-oinarrian gutxieneko pertsonalarengatik aplikatzen den murrizketa

kuota osoaren kenkari bihurtzeak diru-bilketan sortuko lukeen eraginari buruzko txostena, eta lantaldeak jada ezagutzen dituen lau jokalekuak hartu dira aintzat.

b. Eraitzen aurkezpena egingen da zergei buruzko lantaldeak 2014ko ekainaren 5erako, ostegunez, deituta dagoen saioan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua bete zeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Iruñean duen turismo bulegoari buruzko zenbait gairi buruz (PES-00107). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak: Orreaga Etorbidean dagoen bulegoari dagokionez, hura egokitze lanen kostua 146.000 eurokoa izan zen. Horietatik, 7.000 euro proiektuari eta obra zuzendaritzari dagozkio eta gainerakoa obraren exekuzioari. Aurrekontuaren zati handi bat arkitektura-oztopoak kentzeko eta igogailurako guralde bat egiteko erabili zen.

• Inaugurazioaren eguna: 2011ko martxoaren 3a

• Itxieraren eguna: 2014ko apirilaren 26a

Epe horretan esleituta egon diren langileak C mailako funtzionario bat eta kanpoan kontratatutako laguntzako langileak izan dira.

Zein funtzio bete diren:

• Iruñeari eta Nafarroari buruzko turismo informazioa

– Aurrez aurrekoa

– Telefono bidezkoa (848 420420 telefono-deietarako gunea)

– Posta elektronikoko bidezkoa

– Gutun bidezkoa

• [www.turismo.navarra.es](http://www.turismo.navarra.es) webgunea eguneratzea Iruñeari eta Iruñerriari dagokienez

• Kalitate turistiko helmugako tokian neurtzeko kudeaketa-sistema. Erantsitako agirian aipatzen dira emandako arretari buruzko datuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Oharra: Aipatutako dokumentua foru parlamentarien eskura dago Agora aplikazioan).



